

Datorren ikasturtean 14 ikasle etorriko dira Europatik Erasmus egitasmoaren barruan

2009/06/10

Datorren irailetik abendura bitartean, 14 ikasle etorriko dira Europatik, Erasmus egitasmoaren barruan. Horietarik, **9 etorriko dira Irakasle ikasketak egitera**. Gainerako **bostek Ikus-entzunezko komunikazioa aukeratu dute**. Erdi Europa eta Eskandinaviatik etorriko dira ikasle guztiak

- Belgika: 7
- Herberhereak: 3
- Danimarka: 1
- Finlandia: 1
- Suedia: 1
- Norvegia: 1

Hirugarren aldia

Datorren ikasturtekoa izango da Erasmus egitasmoaren hirugarren aldia. **Lehen urtean 9** ikasle etorri ziren Huhezira. **Bigarreanean, 5**. Hirugarrenean, berriz, 14.

Ikasle horiek ez dakite ez euskararik, ez eta gaztelaniarik. Horregatik, **ingeleza erabiliko dute** bai ikasteko eta baita jendearekin komunikatzeko ere. Ikasgai batean, hori bai, **oinarrizko euskara** landuko dute. Lau ikasgaitan, bestalde, hemengo ikasleekin batera arituko dira ikasgelan, ingelesez.

Erasmus ikasle bakoitzak hemengo beste ikasle bat izango du lagun, gurean egokitzen eta integratzen laguntzeko. **Praktikak** ere egingo dituzte, batzuek inguruko ikastetxeetan eta komunikaziokoek EITBn.

